

Goiburu, auzoen arteko lehen proban irabazle

Buruntza, Etxeberrieta, Sorabilla eta Santakruz taldeen aurretik sailkatu zen maiatzaren 2an jokatu zen lehen. Trontza, ergometroa eta ingudearekin jardun ziren / 3

Ekitaldi sorta iragarri du Sare herritarra plataformak, euskal preso politikoen eskubideen alde / 3

Etxekoek eta lagunek Jose Luis Lopez de Lacalle gogoan izan zuten, ETAk erail zuen 18. urteurrenean / 16



MAIATZAK 18 OSTIRALA

17:30 URNIETA
Egape ikastolako jolastoki estalia

7€

AIURRI

Sarrerak salgai: URNIETA

- Bikain okindegia, San Juan Plaza.
- Xauxar Taberna, Idiazabal Kalea.

ANDOAIN

- Aiurri, Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburu-denda, Zumea kalea.



Parte-hartze handia jaietan

Santa Krutz jaiak giro ederrean igaro dira, askoren lanari esker. / 4-11



Azkorteko ermitan urtero berritzen den ohituretako bat da elorria bedeinkatzearena. AIURRI

Ohitura biziberritu zuten Santa Krutz egunean

Hainbat historialarik Santa Krutz eguneko ohitura hamahirugarren mendean kokatzen du. Azken urteotan parte-hartzea jaitsi bada ere, Udalak tradizio zaharrari eutsi nahi dio. Erromeria egin ohi dute bertan urnietarrek eta lasartearrek, egun gutxiko tartean

Xabier Lasa URNIETA

Maiatzaren 3an Santa Krutz jaia ospatu zuten Azkorteko baselizan, aspaldiko tradizioari jarraipena emanez. Udalak antolatuta, meza ospatu zuten lehenbizi eta erromeria ondoren, trikitixa eta bertso doinuekin. Haize ho-

tza zebilen, eta festara bertaratutako jende ugari Urnietara jaitea erabaki zuen, meza entzun ostean. Bertan geratu diren bakanek Larrañaga-Zabalaren trikiti-hots alaiekin eta Larrañaga eta Mendizabalen bertso bikainekin gozatu zuten. Jaiak

Oinanume jatetxean izan zuen jarraipena.

Hiru ospakizun jarraian

Maiatzaren 5ean Aurrera Gure Ametsak ospakizuna antolatu zuen, eta biharamunean, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak.



ONDAREBIDEAK

Adinekoen ibilaldia

Tolosaldeko adinekoen ibilbidea Urnietan barrena igaroko da, maiatzaren 25ean. Parte-hartzaileak Denda Berri elkartetik bertatik irtengo dira goizeko 11:00tan, eta 14:00tan Oianumen bazkalduko dute. Bazkariaren prezioa 14 eurokoa izango da. Parte hartu nahi duenak izena eman beharra dauka, datorren maiatzaren 18a baino lehen.



UDALA

Aldundiaren ekimena Urnietan

Imanol Lasa Foru diputatua Urnietan izan zen maiatzaren 4an, 'Aurrekontu Irekiak' ekimena aurkezten. Ekainaren 30era bitarte, gipuzkoar guztiak parte hartu ahal izango dute Foru Aldundiaren 2019ko aurrekontuen osaketan. Gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean ekarpenak egiteko aukera dago, oraindik ere. Argazkian, Lasa eta Pagola herrikideekin hizketan.

Aurrera Gure Ametsaren ospakizuna



Maiatzaren 5ean Azkortera joan-etorria egin, eta dantza saioa eskaini zuten San Juan plazan. AUERRERA GURE AMETSA





Larunbat eguerdian Etxeberri plazan eskualde mailako kanpaina aurkeztu zuten, Urnietako Sarearen eskutik. AIURRI

Presoen eskubideen aldeko hitzordu sorta

Euskal preso politikoen eskubideen urraketa salatzen, eskualdeko Sarek ekitaldi sorta iragarri du maiatzerako. Santa Barbarara igotzeko martxak abiatuko dituzte herri guztietatik, hilaren 20an. 24an, berriz, hitzaldia antolatuko dute Lekaion

Jon Ander Ubeda URNIETA

Joan zen larunbatean Urnietako Etxeberri plazan Beterrri-Buruntzako Sare plataformako ordezkariak agerraldia egin zuten, presoen egoera zaila salatu eta haien aldeko ekitaldiak iragaritzeko. Agerraldian izan ziren, besteak beste, Joxean Barandiaran Andoingo alkate ohia, Xabier Yurramendi Urnietako EH Bilduko zinegotzia, Karnele Urbistondo Sareko kidea edota Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' pailazoa. Egungo espetxe politika "amorrutik eta mendekutik" abiatzen dela salatu zuten, urrunte neurriekin urte luzez zigor bikoitza ezartzen baitzaie presoei eta euren senideei. Egun, eskualdeko 27 euskal preso politikaren kasuak. Bi kasutan, gainera, gaixotasun larriekin. Egoera bereziki zaila da adin txikiko 12 haurrentzat, presoen seme-alabentzat zehazki. Sarek gizarteari deialdi zehatza egin dio: "Euskal presoek bizi dituz-

ten salbuespen baldintzak indargabetezko denon aktibazioa beharrezkoa da. Bake artisauek

erakutsi bezala, konponbidea euskal herritarren parte-hartze aktibotik soilik etorriko da.

Presoen alde Santa Barbarara

Datorren maiatzaren 20an eskualde osotik mendi ibilaldia antolatu dute Hernaniko Santa Barbarara, bertan ekitaldia egiteko. Andoaindik goizeko 10:30ean irtengo dira Goikoplazatik, eta Urnietatik 10:30ean San Juan plazatik.

Sarek, gainera, aurkezpen ekitaldi ezberdinak iragarri ditu. Maiatzaren 24an, esaterako, Joseba Azkarraga politikari ohi eta Sareko bozeramaileetakoak hitzaldia eskainiko du Lekaio kultur etxean, iluntzeko 19:00tan hasita.

Lehenago, asteburu honetan, bi hitzordu izango dira eskualdean. Ostiral honetan Lasarte-Oriako Okendo plazan erreztaldi kulturala egingo dute 19:00tatik aurrera. Larunbatean, berriz, Hernanin haurrentzat ekitaldia iragarri dute.



Sare herritarra.



Marimotots, Porrotx eta Pirritx pailazoak, ikuskizun berrian. BARREN

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Urnietara datoz hilaren 18an

Egape ikastolako jolastoki estalian "Borobilean" ikuskizun berriena eskainiko dute, 17:30ean hasita

Erredakzioa URNIETA

Urnietako eta inguruko haurrek pailazo ezagunen ikuskizun berriaz gozatu ahal izango dute. Aiora Zulaika Pirritx pailazoak horrela deskribatu du Urnietan eskainiko duten *Borobilean* ikuskizuna: "Hizpide hartu dugu egun hain modan dagoen adiera: bizikidetzeta. Hori bai, beraien hizkuntzara egokituta. Askotan galdetzen dute: Nork agintzen du etxean? Kalean? Eta eskolan? Egutero suertatzen zaizkigun gatazka txiki horien irtenbidea irudikatu nahi izan dugu. Uxue Alberdik oso ondo lagundu digu

gai hori lantzen, lau ipuintxotan. Haurrari zail egin zaio demokrazia edo diktadura moduko terminoak ulertzea, baina modu sinplean azalduz gero, erraz ulertzen du. Eta borobil txikietan gatazka txikiak konpon daitezkeen bezala, hainbat borobiletan bildu beharko ginatke gatazka handiagoak konpontzeko ere".

Sarrerak salgai

Aiurrik antolatu du emanaldia, Udalaren laguntzarekin. Sarrerak 7 euroko prezioan salgai daude Xauxarren, Bikainen eta Andoingo Ernaitzan eta Aiurrian.



SALESIAR IKASTETXEA

Bertso jaialdia

Maiatzaren 2an, Salesiar ikastetxeko antzokian, ikasleen ikasturte amaierako Bertso Jaialdia antolatu zuten. Bertan kantari aritu ziren Presentación de Maria Ikastetxeko 5. eta 6. mailako eta Salesiar Ikastetxeko DBH 1. mailako ikasleak. Ikasturtean zehar, Jokin Labaien eta Unai Ormaetxea bertsolarien eskutik trebakuntza jaso dute.

Jaien hasiera, euripean

Euriak agerpena izan ohi du jaietan, eta aurtengoan hasiera aldera izan zen. Eguna aurrera joan ahala, euria gogotik bota zuen maiatzaren 2an

Erredakzioa ANDOAIN

Inork baino lehen, asteazken arratsaldean txikienek eman zioten ongiatorria jaiari. Zumea plazan haur pregoian parte hartu eta gero, txokolata eta bizkotxoak janez hasiera eman zioten jaiari. Zumea plazaren atzealdean danbor hotsak entzuten hasi ziren, helduen txupinazoa iristear zegoenaren iragarpen modura. Ordu beretsuan, Zumea plazan erraldioak eta buruhandiak noiz euriak atertuko zain zeuden. Busti ziren, ezinbestean, hitzordura hutsik ez egiteko. Zumea-tarra elkarteko danbor eta barril jotzaileak Zubiaurre etxe parera hurbildu zirenerako, Santa Krutz eguneko bluxadun koadrila pregoia irakurtzeko prest zegoen. Alberto Santa Cruzek irakurri zuen pregoia, bertsoak abestuz

amaitu zutena. Lehenik eta behin esker ona adierazi zieten jai batzordeko kideei. Bluxadun koadrila sortu zuteneko garai haiek gogoan hartu zituzten jarreraian. Festarako gonbitea luzatu zuten, errespetuaren aldeko hitzekin: "Orduko gazte haiek gaur erdi aitonduta gaude baina helburu berbera dugu: Alaitasuna nahi dugu gure kaleetan, parrandan elkarren arteko begirunea eskatuz. Gauza guztien gaineratik oso garbi utzi nahi dugu ez esaten denean ezetz dela". Bertsotan hasi aurretik, Uranga tabernako Mertxe zena gogoan hartu zuten.

Aktualitateari loturik, "Nik sinesten dizut" adierazi zuten 2016ko Sanferminetako bortxaketa pairatu zuen gaztearekin bat eginez. Gazteei lotuta, "Al-

tsasuko gazte eta bere senideei besarkada bero bat" bidali zieten. Jaietan arrazoi bat edo dela eta beste bertan izango ez direnak gogoan hartu eta gero, bertsotan aritu ziren (alboko zutabeen hiru bertsoak). Aurtengoan, beraz, bluxa zuri-berdeko lagunek bi egun handi ospatu dituzte: Jaien hasierakoa eta Santa Krutz eguneko. Jaietako egun handian, aurtengo pregoilariak pozarren zeudela adierazi zioten Aiurriri. Eskertuta agertu ziren Zubiaurre parera jende asko hurbildu zelako. Oso babestuta sentitu ziren.

Iluntzean hasita, eta euria gogotik ari bazuen ere, jaiak ez zuen etenik izan. Festazaleek maiatzaren 3a zain zuten. Tradizio handiko eguna, pintxo lehiaketarekin bikain osatu zena.

Jaien hasierako bertsoak

Festaren aldeko hiru bertso eskaini zituzten, pregoian:

- 1 Gazte gaztetikan koadrilan batera, batzuk faltatu arren, gu beti aurrera, Santa Krutz egunean. Sin falta atera soinu panderoarekin, bagoaz kalera, bluxa txuri-berdeaz pasiatzen gera.
- 2 "Exkerranetik hasi, Gaztelutxon trago, Txindokitik barrena Peñan geroago, gure prozesioan santurik ez dago. Jende parranderoak musika nahiago, umorerik ez bada Santakrutz akabo.
- 3 Santakrutz egunian kalejiran irten, berrogeigarren aldiz izango da aurtten. Gazteei ari gera abixu ematen, ia gure ohitura kopiatzen duten, guk gozatu deguna gozatu dezaten.



Jaien hasiera, bertso eta guzti. AIURRI



Busti ziren Zumeatarrako kideak. AIURRI

Pintxo onena Basterokoa, berriro ere



Basteroko lantaldea pozarren, saria eskuratu ostean. AIURRI



Tokitxo. AIURRI



Bastero. AIURRI




Hiru. AIURRI



Traiñerum. AIURRI



Urkiola. AIURRI



Irunberri. AIURRI



Musikariak eta eskopeteroak, Ana Carrere alkatearekin, Ikurriñaren jaitsierarako prest. AIURRI



Santa Kruz eguneko meza osteko txakoli dastaketa Bekoplazako karpan egin zuten.



Joseba Iriarte, Enaitz Vazquez eta Xabat Miner txistulari gazteak. AIURRI



Ezpata dantzaria maiatzaren 3an. AIURRI



Txukuna eta Fino's Band zuzenean aritu ziren, Zumea plazan. AIURRI



Txindoki. AIURRI



Olajauna. AIURRI



Xaxi Metro. AIURRI



Amama Klaudia. AIURRI



Txitibar. AIURRI



Gaztelutxo. AIURRI



Txuri-beltz AIURRI



Muga. AIURRI



Zeru. AIURRI



Txalaka. AIURRI

Koadrila ugari kalean

Lan eguna izan arren, koadrilen eguneko bazkarian ehunka lagun bildu ziren Makaldegiko karpan eta ondorengo ospakizunetan

Erredakzioa ANDOAIN

Azkar batean saldu ziren koadrilen eguneko bazkarirako txartelak, festazale askorentzat egun handia den seinale adierazgarriena. Aurtengoan Makaldegian egin zuten bazkaria, merkaturako eraiki zuten estalpea eta ondoan ipini zuten karpabostehun lagunaren bilgune bilakatuta. Mahaietan esertzeko unean, partaide bakoitzak "Ez ezetz da" kanpainaren pegatina bana jaso zuen. Udalaren kanpainak erantzun bikaina jaso du herritarren aldetik.

Koadrilen bazkariak arrakasta handia izan ohi du gazteen artean. Eskola eguna izan arren, eskolak alde batera utzi eta jai giroan murgildu ziren. Gora Kaletxikik giroa alaitu zuen egunaren hasiera aldera, gazteen

arteko jokoak martxan ziren bitartean. Gazteak gehiengo izan arren, hain gazte ez direnek ere bazkarian izena eman ohi dute. Luciano Uribealgotok, esaterako, mikrofonoa hartu eta kantari modura saio txo bikaina eskaini zuen. Giroa bero-berozegoela, DJ Bull musika jartzaileak ospakizuna kalejira alai bilakatu zen. Disko jartzailearen furgonetak dozenaka jarraitzaile izan zuen atzetik, ibilbide osoan zehar.

DJ saioarekin eta txosnaguneko kontzertuekin koadrila eguneko festazale ugari jai biharamunera arte luzatu zuen. Egitarauan iragarri zuten, goizeko 08:00tan gautxoriek argazkia atera zuten Espigoian. Ez ziren denak ordu berean bildu, baina argazkian zeudenek

behintzat agindutakoa bete zuten. Kalean gora eta behera, oinezkoak gautxori gehiago topatzen zituen. Ordu horretan, Zumea kalea eta Kale Nagusia kristalez eta zaborrez beterik zeuden. Garbitzaileek denbora tarte txikian lan bikaina egin zuten, hastear zen egun berriari jai eremua txukun egon zedin.

Bizikleta festa

Gaztetxoentzat hitzordurik ez da falta izan jaietan. Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatuta, ostiral arratsaldean bizikleta festa antolatu zuten. Denera, ehun partaidetik gora irten zen Zumea plazako ibilbidea osatzera. Andoaingo eskolak bigurpilen gainean trebatzeko egiten duen heziketa lana gorai-patzekoa da.



DJ Bull musika jartzailearen ikuspegia, bazkalosteko musika kalejiran. AIURRI



Koadrilen arteko jolasak Zumea kalean, ostiral goizean. AIURRI



Jolasean parte hartu zuen hainbat lagun, bazkalaurretik ateratako argazkian.



Koadrilen egunerako txartelak azkar batean saldu ziren. AIURRI



Uribealgotok animatzaile lanetan. AIURRI



Kupelen inguruan lagunarte zabala bildu zen koadrilen eguneko bazkarian. AIURRI



Adinaren arabera, ibilbideari itzuli kopuru ezberdina egin behar zuten. AIURRI



Txikitxoek parte hartzearekin ekin zioten bizikleta festari. AIURRI



Bluxadunak partaideen artean. AIURRI



Merkatu plazako estalpearen ondoan karpa ipini zuten, izena emandako lagun guztiei tokia eskaintzeko. AIURRI

Barandiarani gorazarre



Beti Abeslari abesbatzak gogoan hartu nahi izan zuten Barandiaran. AIURRI

Otsailaren 12an zendu zen Juan Bautista Barandiaran musikagilea gogoan hartu zuten Alberto Agirre abesbatzak eta Olagain txistulari elkarteak, urtero jaietan eskaini ohi duten kontzertuan. Oraingoan berak sortu eta zuzendu zuen Beti Abeslari abesbatzak ere parte-hartze berezia izan zuen. Hain zuzen, abesbatza hura sortu zela 50 urte betetzen direnean, taldearen ibilbidea biziberritu zuten Kontxi Arinek eta Joakin Okiñenak. Biek ere Barandiaranek musikarako zeukan zaletasuna eta sormenerako izpiritua nabarmendu zuten. Barandiaranen alargun Tere Errok eta Ixiar, Olatz eta Idoia alabek oroigarria jaso zuten segidan. Azkenik, txistulariek eta abeslariak Barandiaranek sortutako Andoain eta Zumeatarra piezak eskaini zituzten. Merezitako omenaldia jaso zuten Andoaingo sortzaileak.



Barandiaranen familia Olagain txistulari taldearekin. AIURRI

Santakruzak Aiurri.eus gunean



AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Kale Nagusiaren eguna

Auzo bazkaria, bakailao txapelketa, zezen suzkoa edota zuzeneko musika izan ziren Kale Nagusian larunbat osoan zehar, jaiaren erdigune bilakatu.

Erredakzioa ANDOAIN

Geroz eta festazale gehiago hurbiltzen da larunbateko auzo bazkaria, Kale Nagusiaren tarte zabala hartzeraino. Joerak horrela jarraituz gero, etorkizun hurbilean bazkaria egiteko kale osoa beharko dute. Etxetik ekarrita edota ondoko tabernetatik hartuta, bazkaria jai batzordekideen eta familia askoren bilgune bilakatu da. Nahi izate aldera, kale horretatik mugitu ere egin gabe topa daitezke jaiaren osagai guztiak. Bazkaria egiteko jai batzordeak eskaintzen dituen mahai eta aulkiez gain, zuzeneko musikarien eskaintza zabala. La Jodederak, beste behin ere, saio bikaina eskaini zuen. Elektrotxarangak ere bertatik agerpena egin zuen. Eta iluntzean, Zubiaurre etxe azpian,

bi musikaririk La Polla Records taldearen bertsioak eskainiz ikusmin handia piztu zuten. Gitarra, bateria eta ahotsekin talde ezagunaren kantuak eskaini zituzten parean topatu zituztenen gozamenerako. Eguna ilunduta, zezen suzkoaren saio bikoitza izan zen Kale Nagusian bertan. Jaiaren hasieran euriaren eraginez irten ezinik egon zirenez, larunbat iluntzean bi irteera egin zituzten jarraian. Zubiaurre etxearen paretik abiatu ziren Eskola kaleraino, eta atzera buelta bigarren saioa egin zuten. Bertan ziren haur eta gazteak alboetan eta atzetik segika ibili ziren. Arratsalderako, gainera, temperatura igo eta gau giro dotorea geratu zen. Gauzak horrela, konturatzerako Peña Santa Krutz elkartearen

danborrada irten zen. Ohiko duten bezala, puntual ekin zioten danborradari. Elkartearen parean hainbat pieza eskaini eta gero, Eskola kaletik Kaleberrira abiatu ziren. Eta handik jai eremu osoan zehar danbor eta musika hotsak eskainiz aritu ziren.

Bakailao txapelketa

Irunberri elkarteak antolatuta, Kale Nagusian bertan tradizio bilakatu den bakailao txapelketa ekin zioten. Hamar lehiakideren artean, Ontza elkarteak irabazi zuen epaimahaiak emandako 44 punturekin. Irunberri elkarteak bigarren sailkatu ziren, 40 punturekin. Zumeatarra elkarteak izan zen hirugarrena, 36 punturekin. Emozio eta giro handiko hitzordua da.



Ontzako Jose Luis Makazaga eta Mikel Irigoras, aurtengo irabazleak. AIURRI



Lehiara hamar bakailao ezberdin aurkeztu zituzten. AIURRI

Kale Nagusia bete egingo dute laster



Kale Nagusiaren erdialdean ipini zituzten mahaiak, Zubiaurre etxeraino. AIURRI



La Jodederaren, mahaiaren eserita zeuden asko dantzan hasi ziren. AIURRI



Jaietan bluxa jantzita eramatea aspaldiko ohitura da. Urrutira joan gabe, aurtengo pregoia bota duen taldeak bluxa zuri-berdea jantzen bosgarren hamarkadari ekin dio. Koadrilen egunarekin agertu oh dira bluxadun berriak, lagun taldeen ekimenez. Aurtengoan Xomorroak izeneko bluxadun koadrila murgildu da jai giroan. Auzo bazkarian, esaterako, gurasoekin batera paella ederra dastatu zuten. Pregoia bota ostean lehen aldiz jantzi eta igandera bitarte hainbat ekitalditan ikusgai izan da bluxa berde, more eta beltza. AIURRI



Urki dantza taldeak urteroko saioa eskaini zuen Zumea plazan. Tradizioz beteriko errepertorio zabala eskaini zuten. Dantza emanaldiaren bideo sorta ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Gau giroko jokabide narratsak

Kristalezko botila hautsi ugari aurki zitezkeen larunbat goizean, Kale Nagusian. Eserleku bat ere apurtu zuten. Gutxi batzuren jokabidea, bereziki gaueko ordu txikietan, ez da onargarria.


Denona aldarrikatzeko modu alai



Andoaingo Eguzkik izaera ekologista duen jaitsiera antolatu ohi du, urtero.



Parte-hartzaileen algarak eta oihuak entzun zitezkeen erreka bazterretik.



Arrantza lehiaketa larunbat goizean egin zuten Espigoiares inguruan, Ontza elkarteak antolatuta. AIURRI



Amaia, Maite, Alex eta Jon. Txalaparta eta bertso saio ibiltaria, Zumea plazan. AIURRI



Gazte askok lagunartean erreka jaisteko aukera baliatu ohi dute.

Uda giroko amaiera festa

Euri giroan hasitako jaiak eguzkipean amaitu ziren, ospakizunei amaiera borobila emanez. Danborrada, musika eta dantza emanaldiekin amaitu ziren Santakrutzak

Erredakzioa ANDOAIN

Santa Krutz jaietako egitarauan hainbat hitzordu ezinbestekoak dira, eta horietako bat sagardo lehiaketa da. Urteak dira Zumeatarrak antolatzen duela, eta sagardozale askorentzat ezinbesteko erreferentzia da. Igande eguerdian Andoaingo eta inguruko zaletu ugari hurbildu zen aurtengo uztaz gozatzera. Lehen sariak gertukoak izan ziren. Andoaingo Buruntza auzoko Gaztañagak irabazi zuen, Urnietako Oianume eta iaz garaile izan zen Usurbilgo Urdaira aurretik. Sagardotegi hauek ere parte hartu zuten: Urnietako Eula, Setien eta Urruzola; Adunako Aburuza eta Zabala; Aiako Izeta eta Satxota; Asteasuko Sarasola; Astigarragako Bereziartua, Larrarte, Lizeaga, Pe-

tritegi eta Rezola eta Hernaniko Itsas-buru eta Otsua-Enea. Azken urteotan sagardoaren osagarri perfektua izatera iritsi da talo jatea. Basataloak taldearen eskutik, dozenaka lagun hurbildu ziren egin berria zen taloa dastatzera. Igande eguerdian, Zumea plaza jendez gainezka zegoen.

Mugaz eta Banda zuzenean

Bitartean, Juanita Alkain plazatxoan, Udal Musika eskolako ikasle gazteek osatzen duten Mugaz taldea zuzenean aritu zen. Musikan, herriak harrobi bikaina duela erakutsi zuten. Haien atzetik Bandak lau piezako kontzertua eskaini zuen. Tradizioari jarraituz, elkarrekin, Santa Krutz martxarekin amaiera eman zioten kontzertuari bi taldeek.

Musika eta dantza saioak jaien amaiera aldera

Igande arratsaldean bi hitzordu ia batera ospatu ziren: Herriko musika taldeen emanaldia txosnagunean eta plaza dantzak Zumea plazan. Bien bitartean eta gaura bitarte, Herri danborradak Andoaingo kaleak alaitu zituen.

Normaltasuna jaietan

Euriak sortutako zeharkalteak izan dira jaietako eragozpen bakarrak. Ez da bestelakoan aparteko arazorik izan, eta hori bera albiste ona da. Jaiak partehartzaileak izan dira, herritar askok modu batera edo bestera parte hartu baitute. Festazaleak dagoeneko hurrengo hitzorduari begira jarrita daude. Sanjuanak iristeko ez da hainbeste falta.



Joseba Salvador antolatzaileetako, epaimahaikideak atzean dituela. AIURRI



Basataloak taldeak lantalde handia osatu zuen denbora tarte txikian dozenaka talo eskaini ahal izateko. AIURRI



Urdaira (3), Gaztañaga (1) eta Oianume (2) aurtengo lehen hiru sailkatuak. SALBADOR



Sagardo lehiaketa laguntzaile askoren lanari esker antolatzen da. AIURRI



Txistorra eta gazta postua, lanez lepo.



Epaimahaikideetako batzuk sagardoa dastatzeko zain. AIURRI



Herri danborradaren danbor hotsekin eta musika doinuekin amaiera eman zieten Santa Krutz jaiei. AIURRI



Udal musika eskolako gazteen Mugaz taldeak emanaldia eskaini zuen. Harrobia badago herriko musikagintzan. AIURRI



Mugaz taldeak eta Udal Musika Eskolako Bandak bertaratu zirenen txalo zaparrada jaso zuten. AIURRI

GORA ETA BEHERA



'Ez ezetz da' kanpaina

Udalak herritarren artean eraso sexistaren aurkako kontzientziarazio kanpaina abiarazi zuen Santa Krutz jaietan, herriko gainerako jaietara zabalduko dena. Irismen maila handikoa izan da.

Musika eta dantza, jaien amaieran



Txili Pipar taldeak gorazarre egin zion Red Hot Chili Peppers taldeari.



Dukkha musika taldea.



Eguraldi ezin hobe dantzarietzat, igande arratsaldean Zumea plazan.

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Urnieta-Bidasoa Irun **31-27**

SAILKAPENA

- 1 Urnieta **8 puntu**
- 2 Aritzatalde **4 puntu**
- 3 Ordizia **2 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta-Aritzatalde / Lar, 12

SENIOR MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO KOPA

EMAITZA

Urnieta-Egia Kopidin **25-30**

ASTEBURUKO PARTIDA

11:45 Urnieta-Irauli Bosteko / Ig, 13

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA,EMAITZAK

Leizaran-Urnieta **32-26**

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA, EMAITZA

Leizaran-Bergara **32-17**

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA

Urnieta-Bera Bera **11-26**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Pulpo-Urnieta / Lar, 12

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK

Leizaran-Amenabar C (1. multz.) **35-30**
Leizaran Horia-Usurbil (B multz.) **16-20**

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Ereintza-Leizaran / Lar, 12

12:30 Egia 3-Leizaran Horia / Ig, 13

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA

Urnieta-Ereintza **25-30**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15 Urnieta-Amenabar B / Lar, 12

KADETE MAILA, NESKAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZA

Ordizia-Leizaran Horia **19-16**

GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZAK

Leizaran Urdina-Elgoibar **22-21**

Urnieta-Bera Bera **21-33**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:45 Bera-Leizaran Urdina / Osteg, 10

10:45 Urnieta-Aiala B / Lar, 12

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Zarautz Sharks-Ganbara **85-61**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Ganbara-Larramendi / Lar, 12

KADETE MAILA

EMAITZA

Goierri-Ganbara **41-58**

SAILKAPENA

- 1 Ama Guadalupekoa **16 puntu**
- 2 Hernani **12 puntu**
- 3 Irun **12 puntu**
- 4 Ganbara **12 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Irun / Lar, 12

Goiburuk abantaila hartu du auzoen arteko ligan

HERRI KIROLAK Ikuskizun polita eskaini zuten Andoaingo bost auzoetako kirolariek, Santa Krutz jaien hasieran abiatutako desafioan. Trontza, ergometroa eta ingudearekin jardun eta gero, Goiburuarrak nagusitu ziren



Goiburutik lehiatu zen taldea: Estebe Lopez de Muniain, Iker Mujika, Ion Beloki eta Miren Lopez de Muniain.

Emaitza ezberdinak Sagardoaren Txapelketan

ERREMONTEA Ander Goikoetxea urnietarrak eta Azpirozek, Etxarri eta Agirrezabala garaitu zituzten (30-21). Ansa urnietarrak eta Larrañagak aldiz, Etxeberria-Labakaren aurka galdu zuten (23-30). Imanol pixkanaka osatzen ari da, eta zuhurtzia osoz ari da. Hala eta guztiz ere, maila bikaina ematen ari da.



Garrantzia handiko partidak senior eta kadete taldeentzat

SASKIBALOIA Larunbatean Allurralden, kadete mailakoek lehen mailara igotzeko aukera

izango dute. 09:00tan Errobide taldearen aurkako partida jokatu dute. Arratsaldean, 19:15etik aurrera, senior mailakoek jaitziera saihesteko partida izango dute. Joan-etorrian erabakiko da jaitziera, Larramendiren aurka.

Xabier Lasa ESKUALDEA

Liga sisteman jokatu da auzoen arte herri kirol txapelketa. Ligak datozen auzo jaietan izango du jarraipena, Sorabillan amaitzeko. Lehen desafioan Goiburuko taldea nagusitu zen. Hauexek izan ziren lehen jardunaldiko partaideak:

- Buruntza: Joxi Telletxea, Mikel Jauregi, Ainhoa Mangas eta Jon Jauregi.

- Etxeberrieta: Delan Irazu, Iñaki Etxeberria, Nika Murillo eta Angel Urrutia.
- Santa Krutz: Janire Huizi, Ander Gerrero, Aitor Ibarguren eta Amaia Armendariz.
- Sorabilla: Julen Loidi, Irati Uranga, Mateo Ponce eta Josu Arabaolaza.
- Goiburu: Estebe Lopez de Muniain, Iker Mujika, Ion Beloki eta Miren Lopez de Muniain.

Sailkapena, lehen jardunaldia eta gero

1. Goiburu: 12 puntu
2. Buruntza: 11 puntu
3. Etxeberrieta: 8 puntu.
4. Sorabilla: 7 puntu.
5. Santakrutz: 7 puntu.

Etxeberrietako jaietan jokatuko da hurrengo desafioa, Saninaziotan. Sorabillan amaituko da aurtengo ligaska.



Buruntza (Mikel Jauregi, Jon Jauregi, Joxi Telletxea eta Ainhoa Mangas) eta Etxeberrieta (Iñaki Etxeberria, Angel Urrutia, Nika Murillo eta Delan Irazu) bigarren eta hirugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.



Denboraldi amaiera

IGERIKETA Alebinek eta benjaminek azken jardunaldia izan zuten pasa den larunbatean Hernaniko kiroldegian. Guztira 46 gaztetxo lehiatu ziren. Alebin mailakoak, Euskadiko kirol jokoetan arituko dira, bi aste barru.

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Buruntzaldea igeriketa taldeak, alebin mailako 15 neska-mutilek hartu dute parte ligako azken jardunaldian, iraupen ertaineko eta lau estilotoako probatan. Estilo libreko 400 metrokoan fin aritu ziren Izaro Audikana, Leire Lavaud eta Nere Irazu; bosgarren, seigarren eta zazpigarren postuetan, hurrenez hurren. Tximeleta proban, 200 metrokoan Eneko Elizasuk hirugarren postua lortu zuen. Benjamin mailako 31 partaideak ere bikain aritu ziren.



Iraupen ertaineko eta lau estilotoako probatan aritu ziren. BURUNTZALDEA IKT

Iturzaeta herrikoia

PALA Mutiletan 41 bikote eta nesketan 7 gehiago, denera 48 bikote lehiatuko dira. Parte-hartzeko zabalarekin abiatuko da, beraz, aurtengo pala txapelketa herrikoia. Mutilen kasuan kanporatze sistemaren bitartez lehiatuko dira, eta nesken kasuan, ligaskan. Mutilek larunbat honetan ekingo diote lehiari, neskek datorrenean.



Nesken arteko lasterketa

TXIRRINDULARITZA Andoainen maiatzaren 1ean antolatu zuten Santa Krutz lasterketaren 41. edizioan alebin eta infantil mailako neskek mutilekin nahastu gabe aritzeko aukera izan zuten. Emakumezkoen parte hartzea goruntz doan albiste adierazgarria da. Segurakoa izan zen nesken arteko lehen lasterketa.



LABURREAN

ESKUBALOIA

Urrietako senior mailako mutilek asteburuko partida irabaziz gero, kopako finala joka dezakete.

IKASTAROAK

Allurralde kiroldegiko udako eskaintzan izena emateko epea maiatzaren 21ean zabalduko dute.

ARETO FUTBOLA

Andoaingo txapelketako bigarren fasea maiatzean amaituko da, buruz burukoak ekainean hasteko.

KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Mariño	1-1
Urnieta-Orioko	1-1

SAILKAPENA

1 Deusto	68 puntu
2 Allerru	63 puntu
3 Euskalduna	59 puntu
4 Eas 08	50 puntu
10 Hernani	35 puntu
11 Urnieta	33 puntu
12 Martutene	33 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30	Hernani-Euskalduna / Lar, 12
17:30	Deusto-Urnieta / Lar, 12

ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZA

Euskalduna	Atsedena
------------	----------

SAILKAPENA

1 Astigarragako Mundarro	24 puntu
2 Euskalduna	24 puntu
3 Trintxerpe	22 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Urki / Lar, 12
-------	---------------------------

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Touring	5-2
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Urnieta-Bergara / Lar, 12
-------	---------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Aloña Mendi-Urnieta A	1-2
Euskalduna A-Zestoa	4-1

SAILKAPENA

1 Euskalduna A	38 puntu
2 Beasain	32 puntu
3 Urnieta A	31 puntu
4 Allerru A	30 puntu
5 Lengokoak B	24 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta A-Euskalduna A / Lar, 12
-------	----------------------------------

KOPA

EMAITZA

Ordizia-Urnieta B	6-0
Euskalduna B	Atsedena

SAILKAPENA

1 Billabona	33 puntu
2 Euskalduna B	28 puntu
3 Idiazabal	27 puntu
4 Ordizia	16 puntu
5 Segura Goierri	10 puntu
6 Urnieta B	9 puntu
7 Lazkao	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta A-Euskalduna / Lar, 12
-------	--------------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA

Euskalduna-Tomas Lizeoa	1-4
-------------------------	-----

SAILKAPENA

1 Añorga	42 puntu
2 Goierri Gorri	35 puntu
6 Oiartzun	17 puntu
7 Euskalduna	11 puntu
8 Amara Berri	11 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Danena-Euskalduna / Lar, 12
-------	-----------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZA

Antiquoko-Euskalduna	2-0
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Antiquoko	77 puntu
9 Hondarribi	38 puntu
10 Euskalduna	37 puntu
11 Añorga	37 puntu

KOPA

EMAITZAK

Urnieta-Sporting H. B (4.multzoa)	4-1
Lazkao-Euskalduna (7.multzoa)	1-0

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Oiartzun	1-1
------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15	Zestoa-Urnieta / Lar, 12
-------	--------------------------

KARTELDEGIA: ARETO FUTBOLA

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

Euskalduna-Isu Leihoak	11-1
------------------------	------

SAILKAPENA

1 Tolargi	55 puntu
2 Hirukide	54 puntu
3 Oiartzun	49 puntu
4 Herrikide	45 puntu
5 Euskalduna	43 puntu
6 Lauburu	41 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Herrikide-Euskalduna / Lar, 12
-------	--------------------------------

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

A TALDEA

Keler-Txalaka	10-0
Dad Kutxa-Ekhia	-/-
Hogar Extremeño-Akerbeltz	1-6
Lanbroa-Centro Extremeño	-/-

B TALDEA

Academia London -Ganbara	-/-
Academia GF-Gorostidi	-/-
Irunberri-Ekaitz	-/-
Olajauna-Pausoka	1-7

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

LARUNBATA 12

URNIETA Antzerkia

"Euskal Frouzen" antzezlan, Joxemari Berasategiren zuzendaritzapean.

18:00 Lekaio. Dohainik.

IGANDEA 13

URNIETA Mendi irteera

Zanpatuzen mendi irteera familian. Eguraldiaren arabera, antolatzaileek ibilbidea molda dezakete.

09:30, Azkorte.

ASTELEHENA 14

URNIETA Musika emanaldia

Urnieta eta Andoingo ikasleen klarinete emanaldia.

18:30 Lekaio. Dohainik.

ASTEARTEA 15

URNIETA Baserritarren eguna

Meza eta gero, hamaiketako eta bertso saioa Lekaion. 19:30ean Txistularien topaketa eta 20:00tan Aroz abesbatza elizan.

11:00tan hasita, egun osoan zehar.

ASTEAZKENA 16

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan izena emateko epea zabalduko da.

Udal musika eskola.



KUKAI

ANDOAIN Oskara dantza ikuskizuna

Sustrai herrikoia eta adierazpen abangoardista elkar lotuta agertzen dira Kukai dantza taldearen ikuskizunean. Euskal kulturaren paisaia ezberdinak jorratzen dira, sortu zirenetik gaur egunera arte.

Maiatzak 11, ostirala. 21:30, Bastero.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Tailerra

'Aplikazioak euskaraz' ekimena 5-8 urte arteko haurrei zuzenduta.

Bidaide ekimenaren azken hitzordua. 17:30, Bastero.

URNIETA Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna. Sarrerak salgai Urnieta Xauxarren eta BKNn eta Andoingo Aiurri eta Ernaitzan.

17:30, Egape. 7 euro.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Irteera

Mintzalagunen irteera Alkizako Urmara museora.

10:30, Izen-ematea: Udala, AEK.

IGANDEA 20

ESKUALDEA Irteera

Sarek antolatuta, Santa Barbarara.

10:30, Goikoplaza. Andoain 10:30, San Juan plaza. Urnieta

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Campeones

Larunbata, 12:

19:30; 22:00.

Igandea, 13:

19:30.

Astelehena, 14:

19:30; 20:00.

Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa

Larunbata, 12:

17:00.


Ig, 13: 17:00.

La casa torcida

Larunbata, 19:

19:30; 22:00.

Ig, 20: 19:30.



SINOPSIK

Campeones

Zuz.: Javier Fesser. Herr.: Espainia (2018). Iraupena: 124 minutu. Hizkuntza: Gaztelania.

Arazoa zitekena, irakaspen bihurtu

Saskibaloiko entrenatzailea da Marko. Krisi pertsonal baten ondorioz, adimen-urritasuna

duen talde bat entrenatzen hasiko da. Taldea Markoren bizitzako ikasgai bihurtuko da.

ANTZERKIA



Masacre antzezlan, Basteron

"Masacre, una breve historia del capitalismo español" antzezlanak politika garaikidea hizpide du. Alberto San Juan

eta Marta Calvo aktoreak taula gainean arituko dira, maiatzaren 18an Andoainen. Sarrerak salgai daude.

KEINUTIK
puntura

UDABERRIKO BERTSO SAIOA

Maiatzak 12, larunbata • 22:30
Manuel Lekuona Kultur Etxea • Lasarte-Oria

BERTSOLARIAK

Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Ane Labaka

GAI JARTZAILEA

Uxue Loinaz

ANTZERKIA

- KUKUKA antzerki eta dantza eskola
- Bea Egizabal
- Ane Huizi, Mailu Arruti, Miren Egizabal
- Intza Alkain

SARRERAK

5.50€
10 sarrerako bonoa 45€

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Naroa
Naroa Irazu Romanek 9 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Muxu handia etxeko guztien partetik.



ANDOAIN Odile
Odile Igarrizek 8 urte bete zituen maiatzaren 7an. Muxu handia, etxeko partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ez, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora.

Tel.: 943 300 732.

Whatsapp: 619 16 35 37

AZOKA

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktika-rako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.

LANA

Ikasle euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest**. 634 441 353.

AIURRI. AZOKA: diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 12 eta igandea 13
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 12 eta igandea 13
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnieta.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Ikasi eta lan, biak jarraian

La Salle Berrozpe ikastetxean industria mailako formakuntza profesionala eskaintzen dute, eta horietan guztietan lan murgilketa %100ekoa da. Ziurtatu dutenez, eskaera handia iristen zaie inguruko enpresetatik. Ikastetxeak ikasleei gogorarazi nahi die aurre matrikulaziorako epea zabalik dagoela. Bi ikasturteko zikloak dira.



Leitzaran bisitarien etxea

Jon Zulueta Udaleko enplegu zinegotziak eta Ekaitz Zubelzu BiziBiziki enpresako kudeatzaileak, Leitzaran Bisitarien Etxeko aurtengo egitasmo nagusiak aurkeztu zituzten. Bizikletari arreta berezia jarri nahi diote aurre, eta Leitzaran haranera bezala, Andoainera eta ingurura bertaratu nahi dituzte kanpotik etor daitezkeen turistak. Webgunea: www.leitzaran-andoain.eus



Aplikazioak euskaraz

5 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako tailer praktikoa eskainiko dute datorren maiatzaren 18an, arratsaldeko 17:30ean hasita Andoaingo Bastero kulturunean. Partaideei etxetik telefonoa edo tableta eramatea gomendatu zaie. Jarduera horrekin amaiera emango diote euskararen erabilera sustatzeko Bidaide ekimenari.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erdigunea eta Kaletxikiren arteko lotunea itxita, hilabetez



Erredakzioa ANDOAIN

Hoditeria berritzeko lanak direla eta, udaletxe ondoko errepide zatia astelehen goizean itxi zuten. Kale Nagusia eta Kaletxiki elkar lotzen dituen bidea, beraz, itxita egongo da hilabetez. Trafikoan eragin nabarmena izango du horrek. Bitartean, auto gidariek ezinbestean ibilbideak egokitu beharko dituzte.

Kaletxiki aldera joateko bideak

- Zumea plazatik Kaletxikira joateko, Leizaran institututik joatea gomendagarria da.
- Nafarroa plaza inguruan dagoenak, Kaletxikira Ama Kanda etorbideetatik joan beharko du.

Udaletxetik Zumea plaza aldera

- Leizotz edota La Salle etorbideetatik doazenek, Aierbeko pasabidea zabalik izango dute.
- Anbulategitik Agustin Leitzan barrera doanarentzat, Kale Nagusia eta Juan Bautista Erro kaleak zabalik izango dira.

AZKENA



Senideak, lagunak eta ordezkari politiko ugari hurbildu ziren urteurreneko ekitaldira, astelehen goizean. AIURRI

Lopez de Lacalle gogoan izan zuten Andoain

Hamazortzi urte bete dira ETAK Jose Luis Lopez de Lacalle herrikidea etxeko atarian erail zuenetik. Astelehen eguerdian omenaldi ekitaldia eskaini zioten haren izena daraman parkean. Senideak, lagunak eta ordezkari zabala hurbildu zen ekitaldira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hitzorduak hedabide askoren arreta bereganatu zuen, dozena erdi telebista kamara hurbildu baitziren. Baita irrati eta egunkari ezagunetako kazetariak ere. Mari Paz Artolazabal eta Alain Lopez de Lacalleri babesa ematera hainbat pertsona ezagun hurbildu zen. Besteak beste, Maixabel Lasa biktimen arre-

rako zuzendari ohia eta ETaren biktimak, Jose Ignacio Asensio eta Marisol Garmendia PSE-EEko Foru diputatuak, edota Patxi Irigoras, Carlos Sanz eta Estanis Amutxastegi Andoaingo alkate ohiak. Herriko hainbat Udal ordezkari ere bertan ziren. Besteak beste, Mari Jose Izagirre EAJ-PNVko bozeramailea eta PSE-EEko Daniel Garcia eta

Petri Romero. Lagun, herrikide eta senitarteko gehiago hurbildu ziren omenaldira, ekitaldi jendetsua osatuz. Txalo zaparradarekin amaitu zen ekitaldia, minutuko isilunea egin ostean. Aurretik, omenezko eskulturaren loreak utzi eta gero, Mainer Lainez Andoaingo PSE-EEren idazkari orokorrak gertaera latz haren zentzugabekeriaz haus-

narketa egin zuen: "Asteburuan ETAK bere disoluzioa iragarri du. Eta nik nere buruari galdeztzen diot, zertarako hainbeste min eta sufrimendu?". Etorkezuna irabazteko memoria, egia, justizia eta berrezarpena aldarrikatu zituen: "Bizkidetza lantzen jarrai dezagun, bai, baina memoria landuz. Horregatik guri dagokigu orain gurekin ez dauden ahotsa izatea. Ahots sendoa. Ahots ozena".



Alain Lopez de Lacalle eta Mari Paz Artolazabal. AIURRI

Esker ona bertaratu zirenei

Eskertuta eta hunkituta zeuden Jose Luis Lopez de Lacalleren alarguna eta semea. "Eskerrik asko etorri zaretenoi eta muxu handia, bihotzez, gure familia handiari", horixe izan zen Alain Lopez de Lacalleren adierazpena.

111AKADEMIA:REN SARIA 2017

Maiatzaren 10ean, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Andoaingo Bastero Kulturgunean. EKITALDI IREKIA

Idazle saritua:

Uxue Alberdi

Jenisjoplin

eleberriagarik







